

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 475/2020 Erabakia, urriaren 13koa. Onestea jasangarritasun energetikoko ekintzak bultzatzeko diru laguntza lerro bat ematea 2020-2021 ekitaldirako

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 3ko 139/2020 Erabakiaren bidez, onetsi zen energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko dirulaguntza lerroaren 2020-2021erako deialdia.

Ebazpen honek bete egiten du oinarri horietan dagoena, zehazki honako hauetan jasotakoa: "7. Dirulaguntzak emateko prozedura. Eskaerak baloratzeko eta dirulaguntzak emateko irizpideak. Dirulaguntzen zenbatekoa" eta "8. Eskaerak izapidetzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa. Eskaeren epeak eta epe barruan ez ebaztearen ondorioak".

Laguntza lerroak honako jardun mota hauek laguntzen ditu diruz:

1. mota. Eraikin eta ekipamenduen inbentario energetikoak egitea, parke mugikor eta argiteria publikoko instalazioak, kontsumoen kontrola, ikuskaritza energetikoa, eraginkortasun energetikoko ziurtagiriak, ekintza energetikoen planak eta hiri mugikortasuneko planak.

2. mota. Monitorizazio ekipoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea, kontsumitzen den energia benetako beharrianetara egokitzeko.

3. mota. Eguzki argiztapeneko ekipamendua.

4. mota. Energia berriztagarrien aprobetxamenduko instalazioak eta ekipamendua, aprobetxamendu termikoko eta elektrizitatea sortzeko sistemak barne: eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia eta minihidraulikoa.

5. mota. Bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia eta minihidraulikoa aprobetxatzeko, baita erabilera publikoko karga elektrikoko azpiegiturak ere.

6. mota. Ibilgailu elektrikoetarako karga puntuak instalatzea, bizikletentzakoak barne. Kargatzeko puntuak erabilera publikorako izango dira edo erakunde onuradunaren ibilgailuetan erabiltzeko.

7. mota. Ibilgailu elektrikoak eskuratzea, bizikleta elektrikoak barne, erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, 25 erakundek 30 dirulaguntza eskaera aurkeztu dituzte beste horrenbeste jardun garatzeko.

Balorazio Mahaiak onartu egin zuen Bastidako Udalak 2020-07-01eko 15:03an aurkeztutako eskaera, udal igerilekuen eraikinean panel fotovoltaikoak jartzeko zena. Izan ere, egoitza elektronikoa 14:30ean itxi zen eta deialdian ez zen ezarri eskaerak aurkezteko ordu mugarik. Hortaz, eskatzaileek aukera zuten agiriak egun horretako 00:00ak arte aurkezteko.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, zenbait eskabidetan oinarrietan eskatutako dokumentazioa falta zela antzeman zen. Horrenbestez, erakunde eskatzaileei eskaera egin zitzaien aipatutako dokumentazioa aurkez zezaten, eta ohartarazi zitzaien hala jokatu ezean eskaera bertan behera uzten zutela ulertuko zela, aurretik ebazpena emanaz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ezarri bezala.

Aurrekontu eskuragarriaren banaketa, jardun moten arabera.

Eskaerei aurre egiteko gehieneko zenbatekoa 190.000,00 eurokoa da, urteka honela banatuta:

AURREKONTU PARTIDA	URTEA	ESLEIPENA
60.2.05.64.00.762.90.02 Eraginkortasun eta kudeaketa energetikoa 2020-2021	2020	40.000,00 euro
60.2.05.64.00.762.90.02 Eraginkortasun eta kudeaketa energetikoa 2020-2021	2021	150.000,00 euro
Guztira		190.000,00 euro

Behin eskaerak jaso ondoren eta ezetsiak alde batera utzita, hona hemen jardun mota bakoitzerako guztira emandako dirulaguntzak:

JARDUN MOTA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA (GEHIENEZ)	EHUNEKOA	2020KO URTEKOA	2021EKO URTEKOA
1	49.501,50 euro	Ehuneko 33,64	6.300,30 euro	43.201,20 euro
2	4.413,55 euro	Ehuneko 3,00	0,00 euro	4.413,55 euro
3	14.892,68 euro	Ehuneko 10,12	14.892,68 euro	0,00 euro
4	78.328,26 euro	Ehuneko 53,24	18.807,02 euro	59.521,24 euro
Guztira	147.135,99 euro	Ehuneko 100,00	40.000,00 euro	107.135,99 euro

Balorazio Mahaiak aurkeztutako eskaerak aztertu ditu eta puntuazioa eman die zarpigarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera, proposamenek gutxieneko kalitate teknikoa dutela ziurtatzeko eta erabakitzeke zein eskaerei emango zaien laguntza eta zein geratuko diren laguntzarik gabe dagoen aurrekontua agortutakoan. Zarpigarren oinarrian ezarritako balorazio irizpideak honako hauek dira:

A) Proposatutako jardunaren kalitatea eta bideragarritasun teknikoa; 40 puntu gehienez.

B) Inbertsioaren eraginkortasuna, honela neurtuta: energia aurrezpena kostuarekiko erlazioan; 30 puntu gehienez.

C) Jarduna zenbateraino den berritzailea eta esperientzia pilotua izateko aukera duen; 10 puntu gehienez.

D) Jasangarritasuneko edo energia aurrezteko eta energia eraginkortasuna hobetzeko toki erakundeak onartutako planaren barruan egotea jarduna; 10 puntu gehienez.

E) Erakunde onuradunak 500 biztanle baino gutxiago izatea: 10 puntu gehienez.

Eskatutako jardun hauek ez dute lortu oinarrietan eskatutako gutxieneko puntuazioa:

- Arraia-Maetzuko Udala (biomasa galdara instalatzea EUBrako Maetzuko Eguneko Arretarako Landa Zentroan).

- Aguraingo Udala (ibilgailu elektrikoetarako karga puntu bat instalatzea).

Aurrekontua erabilgarri izango duten gainerako eskaerek oinarrietan jasotako gutxieneko puntuazioa lortu dute: 28 puntu 1., 2., 3., 5. eta 7. motako jardunek, eta 50 puntu energia berriztagarrien aprobetxamendurako ekipamenduek eta instalazioek eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuek (4. eta 6. motak).

Zenbat puntu eman den, hainbeste laguntza esleitzen da, harik eta aurrekontu zuzkidura agortu arte. Eman beharreko dirulaguntzak eta haien urteko kuoten arabera banaketa "Emandako dirulaguntzak" I. eranskinean jasotzen dira.

Urte bakoitzean emandako dirulaguntzak eskaera egin duten erakunde onuradunek adierazitako gastu aurreikuspenaren arabera eman dira. Ondorioz, emandako esleipena eta hasierako esleipena ez datoz bat. Hori dela eta, dirulaguntza lerro honetarako esleitutako urteko kopuruak

berresleitu egingo dira, gastu aurreikuspenaren arabera izan daitezten. Honela geratuko dira:

MOTAK	URTEA	JATORRIZKO ESLEIPENA	ESLEIPEN BERRIA	ALDEA
Eraginkortasun eta kudeaketa energetikoa	2020	40.000,00 euro	40.000,00 euro	0,00 euro
Eraginkortasun eta kudeaketa energetikoa	2021	150.000,00 euro	107.135,99 euro	— 42.864,01 euro
Guztira	Biak	190.000,00 euro	147.135,99 euro	

II. eranskinean (“Ezetsitako eskaerak”) daude ezetsi diren dirulaguntzen zerrenda eta bakoitzaren arrazoia. Guztira zortzi (8) eskaera ezetsi dira: bost (5) eskaera egoitza elektrotikoen bidez ez aurkezteagatik, bi (2) gutxieneko puntuazioa ez eskuratzeagatik eta bat (1) laguntzaren onuradunen artean ez egoteagatik.

Behin 2020rako aurrekontua agortuta, gainerako eskaerak poltsan geratu dira. Puntuazioaren arabera hurrenkeran ageri dira III. eranskinean (“Ukatutako eskaerak”). Dirulaguntza lortuko dute, hasieran esleitutako funtsak ezin badira aplikatu, halaxe ezartzen baitu oinarri arautzaileetako 7. puntuak.

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. I. eranskinean (Emandako dirulaguntzak) ageri diren erakundeei laguntza horiek ematea, egin beharreko jardunak gauza ditzaten. 7. oinarri arautzailean adierazten den bezalaxe, onuradunek ebazpenean ezartzen dena onartzen dutela ulertuko da, haren jakinarazpena jasotzen dutenetik 10 egun baliodunetan dirulaguntzari idatziz uko egiten ez badiote. Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontuko “60.2.05.64.00.762.90.02 Efizientzia eta kudeaketa energetikoa” partidaren kontura emango da dirulaguntza (zorpekin erref.: 105-761/20.1.20 eta 105-16 /20.3.21).

Bigarrena. Ezestea II. eranskinean agertzen diren erakundeen eskaerak, han bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena. Puntuazio ordenaren arabera zerrenda bat egitea III. eranskinean, 2020ko aurrekontua agortu ondoren laguntza ukatu zaien eskaerekin.

Laugarrena. Onestea 2020ko abenduaren 23ra arte luzatzea 2020-2021 ekitaldian energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko dirulaguntzen 2020ko urterokoaren gauzatze epea.

Bosgarrena. Onestea 2020ko abenduaren 30era arte luzatzea 2020-2021 ekitaldian energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko dirulaguntzen 2020ko urterokoaren justifikazio agiriak aurkezteko epea.

Seigarrena. Dirulaguntzen ordainketa, 9. oinarriaren arabera, haien emakidaren helburua den jardura gauzatu dela frogatu, eta 139/2020 Erabakiaren IV. eranskinean azaltzen diren agiriak aurkeztu eta gero egingo da.

Apirilaren 1eko 23/19 Foru Dekretuaren 3.8. artikulua honela dio: “Diruz lagundu daitezkeen jardunak kontratatzeke, sektore publikoko kontratuen arloan indarrean den legediak xedatutakoa bete beharko da. Kontratu txikietan (40.000 euroko balio zenbatetsitik beherakoak, obra kontratuak badira; eta 15.000 eurotik beherakoak, hornidura kontratuak edo zerbitzu kontratuak badira), erakunde onuradunak gutxienez bi eskaintza eskatu beharko dizkie lanak egiteko gai diren enpresei, eta ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena hautatzen ez bada, hautaketa hori justifikatu beharko da.”

Zazpigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Zortzigarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA

I. eranskina. Emandako dirulaguntzak

Punt.	Mota	Erakundea	Jarduna	Aurrekontua	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza	2020ko urtekoa	2021eko urtekoa
90,00	4	Lasierako AB	Instalazio fotovoltaikoa Lasierako ABrentzat eta hango biztanleentzat	39.990,50 euro	15.996,20 euro	15.996,20 euro	15.996,20 euro	0,00 euro
75,00	3	Sarriko AB	Sarrian 11 eguzki luminaria jartzea	24.889,70 euro	9.955,88 euro	9.955,88 euro	9.955,88 euro	0,00 euro
67,88	3	Zalduondoko Udala	3 eguzki farol jartzea Zalduondoko zona barreiatu batean	12.342,00 euro	4.936,80 euro	4.936,80 euro	4.936,80 euro	0,00 euro
60,89	4	Antoñanako AB	Eguzki instalazio fotovoltaikoa Administrazio Batzarreko gizarte etxean	10.352,67 euro	4.141,07 euro	4.141,07 euro	0,00 euro	4.141,07 euro
60,19	4	Navaridasko Udala	33 kW-eko autokontsumorako eguzki zentral fotovoltaikoa Navaridasen	36.118,50 euro	14.447,40 euro	14.447,40 euro	0,00 euro	14.447,40 euro
60,00	1	Asparreneko Udala	Energia kontsumoa kontrolatu eta optimizatzea Asparreneko Udalean (2 fasea)	9.819,00 euro	7.364,25 euro	6.000,00 euro	1.200,00 euro	4.800,00 euro
60,00	1	Barrundiako Udala	Energia jarduerarako udal plana Barrundiako Udalean	14.292,00 euro	10.719,00 euro	6.000,00 euro	1.200,00 euro	4.800,00 euro
60,00	1	Burgeluko Udala	Energia kontsumoa kontrolatu eta optimizatzea Burgeluko Udalean (2 fasea)	4.842,00 euro	3.631,50 euro	3.631,50 euro	726,30 euro	2.905,20 euro
60,00	1	Aguraingo Udala	Energia jarduerarako udal plana Aguraingo Udalean (2 fasea)	12.316,00 euro	9.237,00 euro	6.000,00 euro	1.200,00 euro	4.800,00 euro
60,00	1	Donemiliagako Udala	Energia kontsumoa kontrolatu eta optimizatzea Donemiliagako Udalean (2 fasea)	7.054,00 euro	5.290,50 euro	5.290,50 euro	1.058,10 euro	4.232,40 euro
60,00	1	Iruraiz-Gaunako Udala	Energia kontsumoa kontrolatu eta optimizatzea Iruraiz-Gaunako Udalean (2 fasea)	6.106,00 euro	4.579,50 euro	4.579,50 euro	915,90 euro	3.663,60 euro
57,19	4	Laminoriako Errege Haraneko AB	Eguzki energia fotovoltaikoko sistema bat instalatzea Laminoriako Errege Haraneko ABko argiteria publikorako eta gizarte etxerako.	19.791,32 euro	7.916,53 euro	7.916,53 euro	0,00 euro	7.916,53 euro
55,00	1	Okondoko Udala	Argien sarearen eta udal flota eta eraikinen inbentarioa, auditoretza eta kalifikazio energetikoa	8.000,00 euro	6.000,00 euro	6.000,00 euro	0,00 euro	6.000,00 euro
52,00	4	Gopegiko AB *	Kontentsazioko autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa	9.680,00 euro	3.872,00 euro	2.810,82 euro	2.810,82 euro	0,00 euro
50,00	4	Sabandoko AB	Erpaleen biltegia handitzea, biomasa bidez EUB ekoizteko eraikinaren aldameneko eraikinean, Sabandon	72.041,05 euro	28.816,42 euro	23.053,14 euro	0,00 euro	23.053,13 euro
50,00	1	Laudioko Udala	Laudioko Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana	80.000,00 euro	6.000,00 euro	6.000,00 euro	0,00 euro	6.000,00 euro
50,00	4	Bastidak Udala	Eguzki panel fotovoltaikoak instalatzea udal igerilekuen eraikinean	24.907,78 euro	9.963,11 euro	9.963,11 euro	0,00 euro	9.963,11 euro
45,00	1	Bastidak Udala	Bastida eta Gatzaga Buradongo energia jasangarritasunaren azterlana	13.128,50 euro	9.846,38 euro	6.000,00 euro	0,00 euro	6.000,00 euro
45,00	2	Kanpezuko Udala	Telekudeaketako ekipoa instalatzea Kanpezuko kultura etxeko 5 zonatarako	5.884,74 euro	4.413,55 euro	4.413,55 euro	0,00 euro	4.413,55 euro

II. eranskina. Ezetsitako eskaerak

Mota	Erakundea	Jarduna	Ezestearren arrazoiak
1	Zalduondoko Udala	Energia kontsumoa kontrolatu eta optimizatzea Zalduondoko Udalean (2 fasea)	Eskaera ez du egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu
1	Urkabustaizko Udala	Klimaren eta energia jasangarriaren aldeko plan bat egitea Urkabustaizen	Eskaera ez du egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu
3	Izarrako AB	3 eguzki farol jartzea Izarran	Eskaera ez du egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu
3	Arreoko AB	Eguzki farola	Eskaera ez du egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu
4	Zuiaiko Udala	Autokontsumorako eguzki instalazio fotovoltaikoak Zuiako Udalaren eraikin publikoetan	Eskaera ez du egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu
4	Arria-Maeztuko Udala	EUBrako biomasa galdara instalatzea Maeztuko Eguneko Arretarako Landa Zentroan	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
5	Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoa	Maroño sistemaren aprobetxamendu hidroelektrikorako oinarriko proiektua eta alternatibak aztertzea	Ez da laguntza onuradunen artean sartzen
6	Aguraingo Udala	Ibilgailu elektrikoetarako karga puntu bat instalatzea	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa

III. eranskina. Ukatutako eskaerak

Punt.	Erakundea	Jarduna	Aurrekontua	Dirulaguntza, guztira (gehiengoak aplikatuta)	Urtea 2020
52	Gopegiko AB *	Konpentsazioko autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa	9.680,00 euro	3.872,00 euro	1.061,18 euro
50	Lezako Udala	Kanpoko argiteriaren diagnostikoa eta proiektua Lezan	3.085,50 euro	2.314,13 euro	2.314,13 euro
50	Laudioko Udala	4 eguzki luminaria jartzea landa eremuan	9.994,60 euro	3.997,84 euro	3.997,84 euro
50	Lasierrako AB	Instalazio fotovoltaikoaren proiektua Lasierrako Kontzejuan	3.200,00 euro	1.920,00 euro	1.920,00 euro
50	Sabandoko AB	Ezpalen biltegia handitzea, biomasa bidez EUB ekoizteko eraikinaren aldameneko eraikinean, Sabandon	72.041,05 euro	28.816,42 euro	5.763,28 euro

*Aurrekontua agortu denez, Gopegiko Administrazio Batzarrari 2.810,82 euroko zenbatekoa eman zaio. Erakunde hori lehenengo tokian geratu da potsan, eta gainerako 1.061,18 euroak emango zaizkio baldin eta hasieran emandako dirulaguntzetan uko egiteren bat gertatzen bada.